

AGUR, OTAZUA TA ASUA 'TAR BENITO

2.012an Otsaillaren 21ean Urdulizeko errian 94 urte eukezala.

Bere aita E.A.J'ren aldetik Urdulizeko alkatea izan zan, beren euskal sinismenetik artuta, ain sendo erperatuta euki ebazan Euskal Nortasunaren izaerazko zaletasunak.

Bere gaztetasunezko ikasketak, salerosketa eta diru eragillearen arlo-etarako atondu ebazan.

Zaletasun andia euki eban futbolagaitik, Getxoko futbol taldeagaz jokatuta Nando ta Larraurigaz batera erdiko zelaiaren jokalaria lez.

Guda agertu zanean atxilotu eben, eta iru urte ibili bear izan eban ez-bardiñeko espetxeetatik, eta bai espetxeratutako itsas ontzi baten be.

Orren artean eta Frankoren galentzazko⁽¹⁾ agindupean, zigorrezko lantegi-batalloi talde baten bideak egiten.

Algortako janarien elkarteko saltegi edo denda baten menpeko langille lez lan egin eban, eta ortik Zornotzako errira joan zan zurtegi edo egur-lantegi baten, diru arduradun lez lan egiteko.

Algortako Barzelo'tar Marigaz ez-konduta, seme bat euki eben.

Bere maitasunezko zaletasun artean bat, zuaitz-landarak lurreratzea zan eta igalidunak geien, ainbat ordu emoten ebazalako eurak zaintzen.

Zuaitzen artean bere kutuna zetan esanipez, Gernikan daukagun Zuaitz-Sakratua zala, eta beren ezkur



fruituak artu ta bere baserrian landatuz, gaur zuaitz ederrak dira.

Bestea bere maitasunezko Bilbaoko Athleti zan, len esan dogu lez zaletasun andia euki ebalako futbolagaitik, eta Indautxuuko futbol bazkunean be egon zan jokalarien taldeari irakatsi ta trebetzen arduradun lez.

Ardura andiko gizon ona izan zan, eta sekula ez eben ikasi geldirik egoten edo ta alperkeriz bere askatasunezko denborak emoten, alde ortatik gazte ta umeentzako euskal ipuin sariketak antolatuta.

Euskerazaleak Alkartearen kide eta bere izenean euskerearen ikaskintza emoten ebana Alkartearen

Galentzazko agindupean = mandatos impositores de escarmiento.

etxean, Saleros-Batza' ren aretoan, eta baita Errekaldeko Batzokian.

Euskeraz idatzitako ainbat ipuiñ liburuak daukaz:

- “**AZERIA ta TXAKURRA**”.
- “**NIRE TXINDORTXUA ta LUKAS BASA-TXAKURRAREN ZORIGAITZAK**”.
- “**Aaa ZE AMES ZORAGARRIA !**”.
- “**ANTONIO TRUEBAREN IPUIÑAK**”.
- “**ANTXONEKOA**”. Eta beste batzuk.

Liburuak bere zarpeletik ordaintzen ebeza-netik gain, beste batzuk Errekaldeko Lagun Arteko Kultur Taldearen bidez Bilbaoko Udalaren diru laguntzagaz ordaintzen ziran.

Eneban nik bera ezagutu, beragandik daukadazan aipamen guztiak, Olazar eta Uribetar Martin, Egurrolatar Iñaki eta Fernandeztar Karmelek esanak bakarrik euki dodazelako. Olazartar Martinek, begiramen andian euki eban Otazuatar Benito, neuri sarritan aipatzen eustelako eta bai beren ipuiñak emon, gure Egutegi-Takoan argitaratzeko.

Dana dala, eta bera adiñ askokoa izanda gu ezagutu ez arren, “ZER” aldizkarian agertu bear dan gizona da, bere euskal zintzo biziaren arlo andi bateko ardurak, Jaungoikoa-gan, Euskerea, ta Euskerazaleak Alkarteko zeregiñaren serbitzura ipini ebazalako.

Nik ez zindudan ezagutu baiña, zure euskal bizitzaren eskeintzagaitik **EUSKO JELTZALE ABERKIDE LEZ AGURTZEN ZAITUT**.

“AGUR !!”

“EGUN AUNDIRARTE”

Atutxatar Paul

Zornotzan 2.012an Epaillaren 20an

